

[PRENTSA-OHARRA]

GAZTEEKINBAT! PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN GAZTEEK AZKEN HILABETEETAN ZEHAR LANDU DITUZTEN PROIEKTUAK AURKEZTU DITUZTE ARANTZAZUN

gazteekinbat! proiektuaren baitan, Gipuzkoan desabantaila egoeran dauden gazteen enplegarritasuna eta inklusioa errazteko lanean ari gara. Pedagogia feministen bitartez, Gipuzkoako Hasierako Lanbide Heziketako hiru zentrotako gazteak parte-hartzearen gaia lantzen aritu dira, toki bakoitzeko ekosistemekin sinergiak sortuz. Arantzazun (Oñati) aurkeztu zituzten hilabete hauetan zehar landutako proiektuak martxoaren 14an, ostiralez.

Hainbat eragile elkarlanean parte-hartze soziopolitikoa lantzen

Pasaiko Blas de Lezo LHII, Oñati BHI, Errenteriako Don Bosco LHII eta Zizurkilgo Fraisoro LHII zentroetako Hasierako Lanbide Heziketako gazteak aritu dira proiektu honetan lanean, parte-hartzea funtsezko elementua izanik. Gazteekin oinarritzko gaitasun soziolaboralak eta errotze soziokulturala garatzen aritu gara, baita ekosistemarekiko elkarelikatzea ere. Era berean, parte-hartzeak enplegu-aukerak sustatzea ahalbidetuko du.

Askotariko proiektuak

Zentro bakoitzeko gazteek beraien komunitateko erronka bat identifikatu eta landu dute azken hilabeteotan:

- Blas de Lezo LHII zentroko ikasleak, diagnosiko komunitarioaren bitartez, bertako historiak auzo identitatean duen garrantziaz eta bizilagunen artean auzokideetasunak duen indarraz jabetu ziren; hori horrela, jubilatuen elkartearekin hainbat ekintza parkatekatu dituzte, historia eta harreman horien berri jakiteko eta, era berean, auzolagunak ezagutzeko. Azkenik, erakusketa-festa bat antolatu zuten gazteek, topagune horietatik jasotakoaren deboluzioa egiteaz gain, elkarrekin tartetxo bat konpartitzeko, bingoan jolastuz eta eskola bisitatuz.
- Don Bosco LHIIko ikasleek eskola bera hartu zuten diagnostikorako komunitatetzat eta bertako kideei galdetu zieten zer ikusten zuten hobetzeko, azaldu ziren hainbat ideien artean Arnasgela bat osatzea izan zen hautatukoa. Beraz, eskolan eroso egoteko espazio bat diseinatu eta atondu dute proiektuan zehar.
- Fraisoro LHIIIn ere, eskola komunitatearen baitan eraman da aurrera proiektua, galdetegi ezberdinen eta bertako kideen parte-hartzearen bidez, eskolako espazioari erabilera berriak emateko aukera zabaldu da. Hori dela eta, espazio fisiko hori forma ezberdinetan aprobetxatzeko material eta jolasak eskuratu dira, aisialdi denbora nola kudeatzen dugun birpentsatu eta eskaintza anitzagoa osatuz.
- Oñati BHIIko ikasleak Oñatiarren arteko harremanen garrantziaz ohartu ziren eta horretan gehiago sakontzeko asmoz, galdetegi bat landu zuten, herrian ematen zen harremanen aniztasuna eta denboraren poderioz emandako aldaketak aztertzen zituena. Herriar askok hartu zuten parte inkestan eta, erantzun hauetatik, ondorioak atera zituzten. Bukatzeko, erakusketa bat osatu zuten udaletxeko atarian ondorio hauek jendartera zabaltzeko.

Proiektuaren dinamizazioan aritu den Udane Barrenetxea Larreak azaldu duen moduan, *«itzela izan da topaketa. Eskoletako batek proposatu zuen gaurko topaketa eta, sorpresaz, eskolek baietz esan zuten. Gazte guztiak elkarrekin, elkarlanean, euren artean lagun egiten... ikustea oso pozgarria izan da».*

Zentroen arteko topaketa Arantzazun

Arantzazun (Oñati) egindako topaketak hiru zentroetako gazteak elkar-ezagutu eta landu dituzten proiektuak elkartrukatzeke balio izan du.

Goiz osoan zehar programa zabalaz gozatu ahal izan zuten bertaratutako ia 50 gazteek. Elkar-ezagutzarako jolas eta dinamiketaz gain, euren proiektuak aurkeztu zizkieten beste zentroetako gazteei eta, azkenik, gazteekinbat! proiektuan jaso izanagatik diploma bana jaso zuten.

Heziketa zentroetan parte-hartze komunitarioko metodologia sustatzeko prototipoa

gazteekinbat! proiektuaren baitan, eta orain arte zentroekin egindako lana kontuan hartuta, Hasierako Lanbide Heziketako ikasleengan erronkei erantzuteko gaitasuna bultzatzea xede izango duen eredu bat lantzen ari dira Sorginlore gizarte elkarteke kideak.

Prototipo hau osatzen ari dira une honetan eta datozen hilabeteetan sozializatuko da, edozein zentrok mota honetako prozesuak martxan jarri ahal ditzan.

Hainbat eragileren artean elkarlanean sortutako proiektua

ekinbat! Ikaslan Gipuzkoak, Ikertze kultur elkarteak, Zabalduz kooperatibako Batzen proiektuak eta Sorginlore gizarte elkarteak aliantzan bultzatu dugun proiektua da, EHU/UPV, Zehar-Errefuxiatuekin eta Lanbide Heziketako zein Helduentzako Ikastetxe ezberdinekin elkarlanean.

ekinbat!

gazteekinbat! ekinbat! izeneko erronka zabalagoaren baitan kokatzen diren hiru proiektuetako bat da. Proiektuaren helburu nagusia Gipuzkoan bizi diren eta desabantaila egoeran dauden gazteen enplegarritasuna eta inklusioa erraztea da. Horretarako, jendartean, komunitatean eta kulturaren parte hartzea sustatzen duten testuinguruak sortzen ari gara. Horrez gain, eragile estrategikoei bideratutako emantzipaziorako funtsezko ezagutzak zabaltzen dituzten tresnak ere garatzen ari gara.

Prentsa oharrari erantsita topatuko dituzue topaketako hainbat argazki ([hemen](#) sorta zabalago bat deskargatzeko aukera).

Zuen hedabidean proiektua lantzeko interesa izanez gero, elkarriketa edo erreportajeren baten bitartez, idatzi ekinbat.erronka@gmail.com helbidera.